En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 8:30 horas del día 27 de diciembre de 2021, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Dª. Ana Azanza Burusco y Dª Miren Oyarbide Lapazaran bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.
El concejal Sr. D. Mikel Gaztelu Alonso excusa su asistencia.

**1.- APROBACIÓN PRESIÓN FISCAL 2022**
Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que siendo un este un tema que quedó pendiente en la sesión anterior a expensas de hacer una consulta al servicio forestal para ver que opinaban sobre la propuesta del concejal Sr. Juandeaburre de hacer dos tipos de lotes según tonelaje y cobrar diferente, se puso en contacto con ellos y no les pareció adecuado por lo que propusieron seguir por lo menos este año de esta manera, si bien se tendrá en cuenta en la marcación aumentar el volumen del tipo de saca con maderista de 8.000 Kg a 10.000 Kg. y mermar los de libre
La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar la presión fiscal para 2022 en los siguientes términos:

1.-Fijar el 0,19 % el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial

2.-Fijar el 3 por ciento, sobre el presupuesto de ejecución material el tipo de gravamen del impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras. (Tarifa mínima 30 €)

3.-Aplicar el índice 1,4 a las tarifas de impuesto de actividades económicas.

4.-Aplicar los porcentajes 2,2, fijando el tipo de gravamen en el 8,5 por ciento respecto al impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana.

5.- Fijar una tasa de 30 euros por lote de leña de hogar.

6.- Eliminar al resto de las exacciones tributarias municipales la aplicación del IPC

**2.- APROBACIÓN MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS.**
Informa el alcalde Sr. Irigaray de las modificaciones presupuestarias necesarias para que cuadren las cuentas del ejercicio en curso. Respecto a las obras de pavimentación de Ipetea el presupuesto contemplaba 25.000,00 euros, pero el gasto ha sido de 40.617,00 euros, por lo tanto, hay que ampliar la partida de gasto en 15.617,00 euros los cuales se financian con 15.617,00 euros correspondientes a dos subvenciones, ayudas polígonos industriales y ayudas Plan del Pirineo. A esto hay que añadir que esta obra se presentó a la convocatoria de ayudas por el paso del temporal Filomena, pero será el año que viene si se concede la ayuda y su importe.

En cuanto a la puesta en valor de Zaldua (Iturissa) se contaba con una partida presupuestaria de 1.000 euros, pero el gasto ha sido de 14.903 euros, por lo tanto, hay que

ampliar la partida de gasto en 13.903 euros, los cuales se financian con una subvención de 6.874,13 euros, y el resto con remanente de tesorería.

Por último, y respecto a la partida de infraestructuras ganaderas, se contaba con una partida presupuestaria de 43.347,00 euros, pero el gasto ha sido de 55.720,44 euros, por lo tanto hay que ampliar la partida de gasto en 12.770,00 euros los cuales se financian con remanente de tesorería.

La Corporación acuerda por unanimidad aprobar las siguientes modificaciones presupuestarias.

**EXPEDIENTE DE HABILITACIÓN DE SUPLMENTOS DE CREDITO DEL PRESUPUESTO GENERAL ÚNICO PARA EL EJERCICIO DE 2021, CUYO RESUMEN ES EL SIGUIENTE:**

**1ª.-**

**MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS**

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 1 532 6190000 | OBRAS PAVIMENTACION POLIGONO | 15.617,00 |

| | |
|---|---|
| *TOTAL MODIFICACIONES* | 15.617,00 |

**FUENTES DE FINANCIACIÓN**

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 7508003 | SUBV POLIGONO IPETEA | 15.617,00 |
| | | |

| | |
|---|---|
| *TOTAL FUENTES DE FINANCIACIÓN* | 15.617,00 |

**2ª.-**

**MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS**

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 3360 6890000 | PUESTA EN VALOR ITURISSA | 13.903,00 |

| | |
|---|---|
| *TOTAL MODIFICACIONES* | 13.903,00 |

**FUENTES DE FINANCIACIÓN**

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 7508007 | SUBV ITURISA | 6.874,13 |
| 87000 | REMANENTE DE TESORERIA PARA GASTOS GENERALES | 7.028,87 |

| | |
|---|---|
| *TOTAL FUENTES DE FINANCIACIÓN* | 13.903,00 |

3ª.-

**MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS**

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 4121 6810000 | INFRAESTRUCTURAS GANADERA | 12.770,00 |

| | |
|---|---|
| *TOTAL MODIFICACIONES* | 12.770,00 |

**FUENTES DE FINANCIACIÓN**

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 87000 | REMANENTE DE TESORERIA PARA GASTOS GENERALES | 12.770,00 |
| | | |

| | |
|---|---|
| *TOTAL FUENTES DE FINANCIACIÓN* | 12.770,00 |

**3.- APROBACIÓN ADJUDICACIÓN PARCELA 273, POLÍGONO 5, PARAJE KANALEBURUA DE AURITZ/BURGUETE.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que avisa que en la subasta de las parcelas de Kanaleburua se ha recibido una oferta para la parcela 273, polígono 5, por parte de D. Josetxo Chourraut Echeverría, que cumple los requisitos para vivienda protegida, cumpliendo así el objetivo de este Ayuntamiento y la vocación con que se hizo Kanaleburua que era la de fijar población de manera permanente y estable. Informa a su vez que la Mesa de Contratación propone al Pleno, habiendo transcurrido el sexteo sin que se formulara, adjudicar definitivamente a D. Josetxo Chourraut Echeverria, la mencionada parcela por ser una oferta que se ajusta al pliego de condiciones.

En cuanto a la parcela 272, polígono 5, se comunica que no ha habido oferta alguna, por lo que más adelante se estudiará la manera de enajenación del solar.

La Corporación por unanimidad acuerda:

1º.- Ratificar la propuesta formulada por la Mesa de Contratación, adjudicando la parcela 273, polígono 5 a D. Josetxo Chourraut Echeverria, en la cantidad de 21.010,00 euros más IVA, de acuerdo al pliego de condiciones aprobado y aceptado por el ofertante.

2º.- Facultar al alcalde para la firma de escrituras y demás documentos que genere la presente operación.

3º.- Trasladar a la Notaría de Burlada, el acuerdo adoptado junto con datos relativos al comprador a fin de formalizar y escriturar la compraventa de la parcela 273, polígono 5.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 9:15 horas. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2021eko abenduaren 27ko 8:30ean, Udala bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Ana Azanza Burusco eta Miren Oyarbide Lapazaran zinegotziak, bilkura buru alkatea, Jose Irigaray Gil, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.
Mikel Gaztelu Alonso zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

**1.- 2022KO ZERGA-TASAK ONARTZEA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza; izan ere, aurreko saioan baso-zerbitzuari gaiaz galdetzeko zain geratu zen, Juandeaburre zinegotziak tonaren arabera bi lote-mota egiteko eta desberdin kobratzeko egindako proposamenari buruz zer iritzi zuten ikusteko. Hori dela eta, basozainekin harremanetan jarri zen, eta ez zitzaien egokia iruditu. Hortaz eta, aurten gutxienez modu horretan jarraitzea proposatu zuten, nahiz eta kontuan hartuko den zur enpresarekin ateratzen diren loteen bolumena handitzea eta libreki ateratzen direnen bolumena jaistea.
Aho batez erabaki da 2022ko Zerga Tasak onartzea. Hona hemen:

1.- Ehuneko 0,19ko karga-tasa jartzea hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko

2.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)

3.-1,4 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.

4.-Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,2 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,5eko tasa.

5.- Etxeko egur-lote bakoitzeko 30 €-ko tasa jartzea.

6.- Gainontzeko zerga tasak KPIren igoeratik salbuestea.

**2.- AURREKONTUKO ALDAKETEN ONESPENA**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du indarrean dagoen ekitaldiko kontuak koadratzeko behar diren aurrekontu-aldaketak egin direla. Ipetea zolatzeko obrei dagokienez, 25.000,00 euroko aurrekontua zegoen, baina gastua 40.617,00 eurokoa izan da; beraz, gastu-partida 15.617,00 eurotan handitu behar da, eta 15.617,00 eurorekin finantzatzen dira bi diru-laguntzen bidez, industrialdeentzako laguntzak eta Pirinioetako Planeko laguntzak. Horrez gain, obra hau Filomena denboralea igarotzeagatiko laguntzen deialdira aurkeztu zen, baina datorren urtean jakingo da laguntza eta horren zenbatekoa.

Zaldua (Iturissa) balioztatzeari dagokionez, 1.000 euroko aurrekontu-partida zegoen, baina gastua 14.903 eurokoa izan da; beraz, gastu-partida 13.903 eurotan handitu behar da, 6.874,13 euroko diru-laguntzarekin finantzatzen baitira, eta gainerakoa diruzaintzako gerakinarekin.

Azkenik, eta abeltzaintzako azpiegituren partidari dagokionez, 43.347,00 euroko aurrekontu-partida zegoen, baina gastua 55.720,44 eurokoa izan da; beraz, gastu-partida 12.770,00 eurotan handitu behar da, diruzaintzako gerakinarekin finantzatuz.

Udalbatzak erabaki du aho batez honako aurrekontuetako aldaketak onartzea:

**AURREKONTU OROKOR BAKARRAREN KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO TXOSTENA 2021. URTEALDIRAKO. HONA HEMEN LABURPENA:**

**1.-**

**AURREKONTUETAKO ALDAKETAK**

| PARTIDA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| **1 532 6190000** | **INDUSTRIALDEKO ZOLAKETA LANAK** | **15.617,00** |

| | |
|---|---|
| ***ALDAKETAK GUZTIRA*** | **15.617,00** |

**FINANTZIAZIO ITURRIAK**

| PARTIDA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| **7508003** | **IPETEA INDUSTRIALDEKO DIRUL.** | **15.617,00** |

| | |
|---|---|
| ***FINANTZIAZIO ITURRIAK GUZTIRA*** | **15.617,00** |

**2.-**

**AURREKONTUETAKO ALDAKETAK**

| PARTIDA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 3360 6890000 | ITURISSA BALIOZTATZEA | 13.903,00 |

| | |
|---|---|
| *ALDAKETAK GUZTIRA* | 13.903,00 |

**FINANTZIAZIO ITURRIAK**

| PARTIDA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 7508007 | ITURISSAKO DIRU-LAGUNTZA | 6.874,13 |
| 87000 | DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO | 7.028,87 |

| | |
|---|---|
| *FINANTZIAZIO ITURRIAK GUZTIRA* | 13.903,00 |

**3.-**

**AURREKONTUETAKO ALDAKETAK**

| PARTIDA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 4121 6810000 | ABELTZAINTZA AZPIEGITURAK | 12.770,00 |

| | |
|---|---|
| *ALDAKETAK GUZTIRA* | 12.770,00 |

**FINANTZIAZIO ITURRIAK**

| PARTIDA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 87000 | DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO | 12.770,00 |

| | |
|---|---|
| *FINANTZIAZIO ITURRIAK GUZTIRA* | 12.770,00 |

**3.- AURIZKO KANALEBURUAKO 5 POLIGONOKO 273 LURZATIAREN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Kanaleburuako lursailen enkantean Josetxo Chourraut Echeverria jaunak eskaintza bat egin duela 5. poligonoko 273.

lurzatirako. Eskaera horrek etxebizitza babesturako baldintzak betetzen dituela, eta, horrela, udal honen helburua betetzen duela, hots, Kanaleburua egin zela biztanleria iraunkorra eta egonkorra finkatzeko.

Modu berean jakinarazi du Kontratazio Mahaiak proposatu diola osoko bilkurari, sesteorik egon ez denez, aipatutako lurzatia Josetxo Chourraut Echeverriari behin betiko adjudikatzea, egindako eskaintzak bat egin duelako baldintza pleguarekin.

5 poligonoko 272 lurzatiari dagokionez ez da eskaintzarik egon, hortaz, aurrerago orubea besterentzeko aukerak aztertuko dira.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- Kontratazio Mahaiak egin duen proposamena berrestea eta 5 poligonoko 273 lurzatia Josetxo Chourraut Echeverriari adjudikatzea 21.010,00 eurotan gehi BEZ-a, onetsitako baldintza pleguarekin bat eginez, eskaintzaileak onartua.

2.- Alkateari ahalmena ematea izapideak sortuko dituen eskriturak eta gainerako dokumentuak sinatzeko.

3.- Hartutako erabakia eta eroslearen datuak Burlatako Notaritzari jakinaraztea, 5 poligonoko 273 lurzatiaren salerosketa gauzatu eta eskriturak egiteko.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 9:15ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.